### 5.1.3. Ebaluaketa egiteko eskema

**GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO UDAL PROGRAMAREN EBALUAKETA ETA LABURPENA.**

Ebaluaketen ebaluaketa eta laburpena egiteko, ondoren azaltzen den ebaluaketa eskemari helduko zaio.

**Ebaluaketen laburpena egiteko eskeman, ebaluaketaren eskeman jasotzen diren atal berdinak jasoko dira: taula – deskribapena – balorazioa – jarraibideak.** Diskete bat banatuko da, osatu behar diren atalak betetzeko gidoiarekin. Taula, beteta dago ia oso osorik.

Kontuan izan behar da honakoak direla laburpenaren xedeak:

- ✓ Aldatu beharreko gaiei, ekin beharreko arazoei, sartu beharreko hobekuntzak, ... gauzatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen gaiak sartzea.
- ✓ Eta datozen lau urteetan programak izango duen garapena bideratzea.

Ebaluaketen laburpena Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren, edo Kultura Departamentuaren bilera orokor batean aurkeztuko da eta bertan datuak, balorazioak eta, batez ere, programaketarako jarraibideak kontrastatu eta osatuko dira.

Laburpena bileran egiten diren ekarpenekin osatuko da.

Une horretatik aurrera ebaluaketen laburpenetaz hitz egingo dugu (une honetan, txostenak dira); eta beti ere, kontuan izan behar da adierazten den guztia biurteko ebaluaketan ere aplika daitekeela.

**...............................................KO UDALA**
**............................ UDAL DEPARTEMENTUA**

**GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO UDAL PROGRAMAKO EBALUAKETEN LABURPENA, PROGRAMA EZARRI ZENETIK AURRERA**

## 1. Ebaluaketen laburpen taula

**I. EBALUAKETEN LABURPEN TAULA**

1. Sarrera

1.1. Programaren deskribapen laburra (fitxa teknikoa)
1.2. Audientzia eta ebaluaketaren helburuak, xede den populazioa eta egiteko erabili diren sistemak
1.3. Ebaluaketa irakurtzeko oharrak
1.4. Aurkibidea

2. Aztertutako aldian egindako programaketen laburpena.

## 1. Ebaluaketaren laburpen taula

### 1.1. GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programaren fitxa teknikoa

Ebaluaketaren taula, **programaren deskribapen** labur batekin **(fitxa teknikoa)** hasten da.

| GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA ARRISKU EGOERAN DIREN ADINGABEKOEKIN ETA GAZTEEKIN |
|---|
| **HARTZAILEAK**<br>Arrisku eta gizartean moldatu gabeko egoeran dauden adingabekoak eta gazteak, batez ere nerabeaurrekoak eta 11 eta 17 urte bitarteko nerabeak; adingabeko eta gazte horien familiak; hezkuntza ez-arautuko eta kultur baliabide komunitarioak eta, oro har, adingabekoei eta gazteei zuzenduriko hezkuntza programak gara ditzaketen guztiak; zerbitzu sistemak; eta komunitatea oro har. |
| **PROGRAMAREN HELBURUA**<br>Gipuzkoan arrisku eta moldatu gabeko egoeran dauden adingabeko eta gazteak testuinguru eta baliabide arautuetan –herritar orori zuzendutakoetan- eta egokitutakoetan txertatzea (guraso taldeak, familia, eskola, lan merkatua, kalea, baliabide komunitarioak,...), gizartean egokitzen zaizkien rol eta funtzio desberdinak betetzeko gaitasunak, ezagupenak, jarrerak eta interesak garatuz hiritartasun aktiboko kontzeptutik abiatuz, eta adingabekoen eta gazteen autonomia testuinguruak eta haien garapena bultzatzea. |

## GIZARTE EKINTZARAKO EREDUA / BALOREAK

Aniztasunaren balorea, desberdintasunarenganako errespetua: kulturartekotasuna.
Pertsonaren, banakoaren, gutxiengoen balorea.
Gizarteratze bideak ugaritzea, esku hartzearen egokitzea, "bezeroari begira".
Pertsona eta kolektiboa muin gisa, proiektu desberdinen erantzunen malgutasuna,... .
Birbanaketa, desfaboratutako edo baztertuta dauden kolektiboei lehentasuna ematea. Aukera berdintasuna.
Demokrazian sakontzea, deszentralizazioa, komunitateko erabiltzaileen parte hartzea,... proiektu eta/edo programak diseinatzerakoan, gauzatzerakoan eta ebaluatzerakoan. Sumatutako, adierazitako beharrak, arauak eta erkatutako beharrak txertatzea.
Enkulturizazioa eta kultur genesia, ikasketa eta gizarte funtzioen banaketa/eraldaketa, indarraren kontrola eta kanalizazioa. Hiritartasun aktiboa. Autonomia, autokudeaketa.
Bitartekaritza, negoziazioa, esku hartzearen muin eta lan tresna gisa.
Normalizazioa, integrazioa, prebentzioa eta sustapena (herritar guztiei zuzendutako zerbitzu sistemetan eta baliabide "arautuetan" zentratutako lana). Lehiakortasunaren eredua.
Pertsonaren ikasketa gaitasuna bere bizitza osoan zehar.
Molda ezintasunaren eta dimentsioaniztasunaren problematiken gizarte jatorria. Biktima ez; "arrazoietarako" orientabidea, bazterketara daramatzaten egoera objektiboen aldaketa.
Departamentu eta erakunde arteko koordinazioa; diziplinaniztasuna.
Hezkuntzako erantzukidetasuna; pertsonarekin berarekin hasiz.
Erantzunen hurbiltasuna eta osagarritasuna (solidaritateko bat-bateko formulak, boluntariotza, autolaguntza, profesionalak).
Sareen artikulazioa, erantzun kolektiboak (lana kolektiboetan zentratua).
Inguruaren hezkuntza alorreko garrantzia
Inguru ez-formaletako hezkuntzaren gaitasuna eta balioa.
Emakumezkoaren sustapena, enplegu lokalaren sorrera, ingurugiroaren hobetzea

## ERAGINA

Gizarte larrialdietako etxebizitzak erabiltzea azkeneko bi urteetan.
Gizarte larrialdietako etxebizitzak erabiltzea azkeneko bi urteetan (emakumezkoak adingabekoekin eta gazteekin).
Hezkuntza eta/edo familia terapiako programetan parte hartu izana azkeneko bi urteetan.
Hezkuntza eta/edo familia terapiako programetan parte hartu izana azkeneko bi urteetan (familiak edo elkarbizitzako unitateak adingabekoekin eta gazteekin).
Gazte enplegua / langabezia tasa eta maiztasuna (16-29 urte)
Drogen (tabakoa, alkohola eta legez kanpoko drogak) kontsumoa 11 eta 17 urte bitarteko adin multzoan.
Instituzionalizatutako anai-arrebak (azkeneko bi urteetan).
Instituzionalizatutako familia kideak (azkeneko bi urteetan).
Etxebizitzako baldintzak (baldintza higieniko eta segurtasunekoak, konponketak, oinarrizko ekipamendua –erabilgarritasuna eta funtzionamendua-).
Aita edo ama familiaren barne izatea ala ez (elkarrekin bizi direnean).
Familiaren edo elkarbizitzako unitatearen harreman sarea (hedadura, erreferentzia positiboko edo laguntza emateko ezagunak izatea ala ez)
Tratu txar edo utzikeria fisiko edo emoziozko aztarnak (adingabekoak eta gazteak)
Sexu-abusuaren aztarnak (adingabekoak eta gazteak)
Lan abusuaren aztarnak (adingabekoak eta gazteak).
Espediente irekia Adingabekoen Auzitegian azkeneko bi urteetan zehar (adingabekoak eta gazteak).
Instituzionalizazioa azkeneko bi urteetan zehar (adingabekoak eta gazteak).
Enplegua/Langabezia egoeran azkeneko bi urteetan zehar (15 urtetik gorakoak, hezkuntzatik kanpo).
Aldizkakotasuna eta ardura eskaeren eta maila lokaleko bestelako ardura sistemen arteko egokiera maila (familiak).
Eskola etekina
Ikasketa maila (adingabekoak eta gazteak)
Emakumearen sustapena, herri mailako enpleguaren sorrera, ingurugiroaren hobekuntza.

| HELBURU OROKORRAK | HELBURU ZEHATZAK<br>(“arazoarekin edo arazoekin” / xedea lotuta) |
|---|---|
| **A.1. Ezagupenak, gaitasunak, jarrerak eta interes orokor eta zehatzak transferitu, orokortu eta garatu testuinguru arautu eta egokitu desberdinetan.** | (Hipotesiekin lotutako helburu guztiak –jardueren eskaintza propioaren barne- testuinguruei aplikatuz eta urte beteko segimendu baten ondoren). Eta horretaz gainera,<br><br>Adingabeko edo gaztearen garapen eta portaera egokiak jasotzea (testuingurua) |
| **A.2. Parte hartzea testuinguru arautu eta egokitutakoetan**<br><br>A.2.1. Familia-dinamika positibo batean parte hartzea. | Familiari eskainitako denbora handitzea eta familiarekin gauzatutako jarduerak zabaltzea.<br>Zaintzaile nagusiek ezarritako ordutegiak errespetatzea.<br>Laguntzea etxeko lanetan.<br><br>Ikastetxera joatea.<br>Orduan joatea jardueretara (ikastetxean)<br>Eskolako lanak egitea. |
| A.2.2. Hezkuntzako baliabide formaletan, arautuetan eta ez-arautuetan, parte hartzea, populazio osoari zuzendutakoetan eta berezietan, arrisku egoeran diren adingabeko eta gazteen ezaugarrietara egokitutakoetan.<br><br>A.2.3. Lan aurreko esperientzia hartzea. | Hezkuntzan jarraitzea edo enplegu munduan sartzea, lanaurreko esperientzia batekin.<br>Motibazioa garatzea eta enplegua modu aktiboan bilatzeko trebetasunak lortzea.<br>Lanaurreko jarduerarekin lotutako gaitasun espezifikoak eta gaitasun orokorrak lortzea (puntualitate ohiturak, ordena,..., eta komunikazio eta harreman trebetasunak). |
| A.2.4. Harremanetako sare ez-formal positibo eta zabaletan parte hartzea. | Harreman sare egonkor, zabal eta egoki bat garatzea (adin bereko lagunak).<br>Aisialdi eta denbora libreko jarduerak burutzea bere lagunekin.<br><br>Antolatutako denbora libreko jardueratan parte hartzea<br>Autokudeaketako proiektuetan inplikatzea (antolatu, inplikatu, kudeatu, taldean jarraitu urte bete igaro ondoren). |
| A.2.5. Hezkuntzako baliabide formaletan eta gizarte kulturaletan parte hartzea, populazio osoari zuzendutakoetan eta berezietan, arrisku egoeran diren adingabeko eta gazteen ezaugarrietara egokitutakoetan.<br><br>A.2.6. Testuinguru-adingabeko/gazte harremanak hobetzea (testuinguru guztietan). | Adingabekoaren edo gaztearen proposamen positiboak beretzat hartu eta proposamen negatiboak baztertu (testuingurua)<br>Adingabeko/gaztea-testuinguruaren arteko komunikazioa hobetzea<br>Loturak sortu erreferentzia positiboko pertsonekin (adingabekoa/gaztea).<br>Adingabekoaren edo gaztearen harreman sarea zabaltzea (testuinguruaren barne). |
| A.2.7. Testuinguru-adingabeko/gazte pertzeptzioa hobetzea (testuinguru guztietan). | Adingabekoaren pertzeptzioa hobetzea eta rolak ematea (testuingurua).<br>Testuinguruaren barneko portaeraren pertzeptzio errealista bat izatea (adingabekoa/gaztea).<br>Testuinguruaren pertzeptzioa hobetzea (adingabekoa/gaztea) |

| HELBURU ZEHATZAK | BITARTEKO HELBURUAK |
|---|---|
| **B.1. Ezagupenak eta gaitasunak lortzea, eta gizartzeratzeko oinarrizko jarrerak eta interesak garatzea, kale hezitzaileen eskaintza propioaren testuinguruan.** | B.1.1. Informazio adierazgarri eta garrantzitsu nahikoara norbera bakarrik heltzeko gaitasuna.<br>B.1.2. Autoestima, oinarrizko ohiturak, harremanetarako trebetasunak eta bestelako ezagupenak, gaitasunak eta jarrera transferigarriak garatzea.<br>B.1.3. Ezagupenak, gaitasunak eta jarrera espezifikoak hartzea, eskolako probetxamendua norbere aukeretara egokitzeko.<br>B.1.4. Denbora libreko jardueratan parte hartzeko ezagupenak, gaitasunak eta jarrera bereziak hartzea. |
| **B.2. Adingabekoek eta gazteek beren erantzuna ematea bizi dituzten arrisku egoerei (komunitatea).** | B.2.1. Dauden hezkuntza testuinguru/baliabide edo programak arrisku egoeran diren adingabeko eta gazteen ezaugarrietara egokitu edo baliabide edo programa egokitu berriak sortu.<br><br>B.2.2. Sentsibilizazioa eragin gizarte bazterketa eta desabantailako arazoaren gainean (komunitatea, oro har, azpitalde bereziak eta baliabide komunitarioak). |
| **B.3. Familiaren eta eskolaren eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea.** | B.3.1. Familia-eskola harremanak hobetzea<br>B.3.2. Familia-komunitatea harremanak hobetzea |
| **ZERBITZU UNITATEAK/ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK[1]** | **PROIEKTUAK/EMAITZAK** |
| • Informazioa, orientabidea eta bideratzea. | • Informazioko elkarrizketak<br>• Orientabide elkarrizketak<br>• Gizarte Zerbitzuetako eta bestelako zerbitzu sistemako baliabideetara bideratzea.<br>• Informazio eta orientabide proiektuak[2] |
| • Hezkuntza espezializatua (banako eta taldeko esku hartzea). | Igarobideko eskaintza propioa:<br>• Banako hezkuntzako esku hartzea.<br>• Taldeko hezkuntzako esku hartzea:<br>• Hezkuntzako jarduerak<br>• Kultur sorkuntza eta hedapen jarduerak<br>    • Lurraldearen, kulturaren, usadioen eta ohituren ezagupena<br>    • Arte adierazpeneko jarduerak<br>• Aisialdiko jarduerak<br>    • Udalekuak, kanpalekuak, trukaketak<br>• Kirol jarduerak<br>• Ingurugiro jarduerak<br>• Belaunaldi arteko jarduerak<br>• Bestelako ikastegiak |
| • Lan komunitarioa (gizarte sustapena eta lankidetza). | · Igarobide proiektuak (baliabideen sorrera eta egokiera)<br>· Komunitatearen sentsibilizazio proiektuak.<br>· |

[1] Kontuan izan, berriro ere, kale hezitzaileek burutzen dituzten esku hartzeak informazio, balorazio eta orientabide, sustapen eta gizarte lankidetzako programen barne sar daitezkeela, bai eta, (udal bakoitzean programa bakoitzari eman zaion edukinaren arabera) prebentzio eta gizarteratze eta familia eta elkarbizitza programen barne ere.

[2] Informazio eta orientabidearen inguruko ekintzak, banako eta taldeko proiektuen barne ere garatzen dira.

| **PROGRAMA GARATZEN DEN ESPARRUA** | **ESKU HARTZEKO PROZESUA** |
|---|---|
| Inguru irekia:<br><br>• Kalea<br>• Etxea<br>• Irabaz xederik gabeko hezkuntza eta gizarte eta kultur ekipamenduak, arautuak eta ez-arautuak, publikoak eta pribatuak.<br>• Hezkuntza programak garatzen dituzten bestelako zerbitzu sistemetako baliabideak (osasun etxea,...).<br>• | • Beharren eta baliabideen ebaluaketa –komunitatearen azterketa- (lau urtez behin eta hiru hilabeteko erabateko arduraldiaz).<br>• Udal Programaren garapen Planaren diseinua (bi urtez behin).<br>• Hasierako, banako eta taldeko ebaluaketa<br>• Informazioa, orientabideak eman eta bideratzea<br>• Banako eta/edo taldeko esku hartze aren diseinua (programaketa, ebaluaketaren diseinua)<br>• Programatutako ekintzen garapena:<br>    • Banako eta/edo taldeko hezkuntzako esku hartzea<br>    • Banako eta taldeko esku hartzearen ebaluaketa<br>    • Informazioa, orientabidea eman eta bideratzea<br>    • Baliabide arautuetara edo autokudeaketako proiektuetara igarotzea<br>    • Testuinguruetan txertatzearen gaineko ebaluaketa.<br>• Segimendua<br>• Itxiera<br>• Beharren eta baliabiabideen ebaluaketa (bi urtez behin) eta ebaluaketen laburpena (lau urtez behin). |
| **GIZABALIABIDEAK**<br><br>A) PROGRAMA<br><br>• Kontsortzioko Gobernu Batzordeko kideak.<br>• Gizarte Ongizate, kultura, hezkuntza arloetako zinegotziak.<br>• Kontsortzioko Gerentea<br>• Udal Programetako arduradunak (gizarte zerbitzuetako udal departamentuko buruak).<br>• Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako teknikari laguntzaileak.<br>• Programako koordinatzailea<br>• Oinarriko Unitateko arduradunak<br>• Gizarte langileak<br>• Kale hezitzaileak (lanegun erdiz eta lanegun osoz).<br>• Drogomenpekotasunaren prebentziorako teknikaria.<br>• Aldian aldiko bestelako laguntzaileak.<br>• (Famili hezitzaileak eta terapeutak)<br>• (Etxez etxeko laguntza zerbitzuko laguntzaileak –bada mota honetako esku hartzerik adingabekoak dituzten elkarbizitzako unitateetan, baina maila oso apalean).<br><br>B) BESTELAKO ZERBITZU SISTEMAK<br><br>• Kulturako Udal Departamentuko profesionalak.<br>• Gizarte-hezkuntza eta gizarte-kultura baliabide ez-formaleko profesionalak eta boluntarioak.<br>• Ikastetxetako profesionalak (zuzendaria, tutoreak, aholkulariak) eta zonako PAZekoak (gizarte moldaketako teknikaria)<br>• Hezkuntza, prebentzio komunitarioko programak burutzen dituzten osasun etxeko profesionalak. | **BALIABIDE MATERIAL ETA EKONOMIKOAK**<br><br>Baliabide ekonomikoak<br><br>• Programaren aurrekontu orokorrak: 56 milioi.<br><br>Baliabide materialak (udal ekarpena)<br><br>• Taldearen lanerako tokia eta jarduerak burutzeko lokala.<br>• Material suntsikorra (bulegoko materiala).<br>• Jarduerak burutzeko materiala (kiroletakoa, aisialdirakoa). |

| PROGRAMEN ERAKUNDE MENPEKOTZA | ADINGABEKOEN ETA GAZTEEN HEZITZAILEA GIZARTE ZERBITZU KOMUNITARIOETAN TXERTATZEA FUNTZIONALKI. |
| --- | --- |
| Lurralde historikoaren mailan, programa Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionaleko Kontsortzioaren menpe dago (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila -%50- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentua, Gazteria eta Kirol Departamentua eta Kultura Departamentua -%50-).<br><br>Kontsortzioak Gobernu Batzorde bat du, bai eta osatzen duten departamentuko profesionalek eta GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programaren koordinatzaile batek osatutako batzorde tekniko bat ere.<br><br>Maila lokalean (kasu guztietan udalerri mailan, oraingoz behintzat) programa bere baitan biltzen duen udal Departamentuaren menpe dago (normalean, Gizarte Zerbitzuetako Departamentua eta zenbait kasutan, Hezkuntza edo Kulturako Departamentua).<br><br>Epe luzera, ordea, maila lokalean Kontsortzioaren egitura beretsu bat garatu nahi da (departamentu berdinekin, maila politiko batekin eta beste tekniko batekin osatuko litzatekeena), bere menpe egongo litzatekeelarik inguru irekiko hezkuntzako udal plana.<br><br>Helburu hau kontuan izanik, ez dago inolako eragozpenik GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programa, udal mailan, Kontsortzioa osatzen duten departamentu homologoetako edozeinek bere gain hartzeko.<br><br>Kontsortzioak bere gain hartzen ditu, kale hezitzaileen kontratazioko eta jarduerak burutzeko zenbait gastu. Bera da udalei eta enpresa zerbitzu emaleei zuzendutako programaren deialdi publikoa egiten duena.<br><br>Programa ezartzen duten udalen ekintza, Kontsortzioaren programa markoan eta lurralde historikoaren mailan programa garatzeko planean ezartzen diren parametroen barne gauzatu behar da (kudeaketa plana).<br><br>Udalek pertsonal eta jarduera gastuetan esku hartzen dute, Kontsortzioari egingo dioten ekarpen ekonomiko baten bidez.<br><br>Epe motzera, Udalak Gobernu Batzordean txertatzea lan daiteke, bai eta udal programen arduradunak Batzorde Teknikoan parte hartzea ere (beti ere, GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programa xede delarik).<br><br>Bestetik, Osakidetzak Kontsortzioan izan dezakeen parte hartzea ere aztertu nahi da (lehen mailako arreta). | Udalerri mailako programari dagokionez, erakunde gisa bere gain hartzen duen udal departamentua edozein delarik ere, kale hezitzaileak, funtzionalki, gizarte zerbitzu komunitarioetan biltzen dira.<br><br>Honen arrazoia da, kale hezitzailearen lanaren xedea bera: arrisku egoeran diren adingabeko eta gazteen gizarteratzea testuinguru arautu eta egokitutakoetan. Hala eginkizuna, nola hezitzailearen lanaren xede den populazioa (bazterketa eta/edo desabantaila egoeran dagoena), gizarte zerbitzu komunitarioen berdinak dira.<br><br>Gizarteratzea, hezkuntzara, lan mundura, etxebizitzara, kulturara, osasunera,... heltzeko aukera gisa ulerturik, gainontzeko zerbitzu sistemen, Gizarte Politikaren, maila zabalean, eta gizarte agenteen erantzukizuna da. Bazterketa egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen gizarteratzea, gizarte zerbitzuen sistemaren eta gainontzeko zerbitzu sistemenen erantzukizun elkarbanatua da.<br><br>Gizarte zerbitzu komunitarioetako profesionalen lana erabiltzaileei informazioa, orientabideak ematean eta bideratzean zentratzen da, beren autonomiarako euskarriak ematean (laguntza ekonomikoak eta elkarbizitzarako irtenbideak), normalean, izaera iragankorrekoak alegia, eta erabiltzaileen hezkuntza eta errehabilitazioa eta bitartekaritza ekintzak gauzatzea, baliabide arautuen eta egokitutakoen sustapena eta komunitatearen sentsibilizazioa.<br><br>Kale hezitzaileek zeharkako lan bat burutzen dute, gizarte zerbitzu komunitarioen baitako arretaren barne (lau programa), adingabeko/gazteekin eta testuinguruekin arreta lana jarrai bat burutuz, beste profesional batzuekin.<br><br>Arrisku egoeran diren famili eta adingabekoekin egindako esku hartzeak ardura alorraren multzo osoaren garapena dakar berez, euskarri ekonomikoa (GGL, GLL,...) eta elkarbizitzako bestelako aukerak emanez.<br><br>Epe motz-ertainera, kale hezitzaileak, funtzionalki, gizarte zerbitzu komunitarioen barne txertatu nahi dira. |

## 1.2. Ebaluaketen laburpenaren hartzaileak eta helburuak, xede duen populazioa eta egiteko erabili diren sistemak.

Behin programaren taula egin ondoren, **ebaluaketen laburpenaren hartzaileak eta beren interesak, ebaluaketen laburpenen helburuak, xede duten populazioa eta egiteko erabili diren sistemak deskribatu behar dira.**

Gai hau idatzita dago honezkero. Punturen baten inguruan zerbait erantsi edo aldaketaren bat egin nahi bada horrela adierazi eta egin behar da.

### 1.2.1. Hartzaileak

Ebaluaketen laburpena, nagusiki, kale hezitzaileen taldeari zuzentzen zaio, GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programa bere baitan hartu duen udal departamentuari eta Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko Kontsortzioari.

Ebaluaketen laburpenaren laburpena interesa dakieke:

- Gizarte ongizateko eta kulturako udal departamentuei.
- Aipatutako arlo horietako zinegotziei
- Maila lokaleko bestelako zerbitzu sistemei (eskolak, osasun etxeak).
- Beren jarduerak, arrisku egoeran diren adingabekoei, gazteei eta familiei edo horiei guztiei zuzentzen dizkieten komunitateko bestelako baliabideei.

Ebaluaketaren diseinuak horien guztien behar eta interesei erantzun nahi izan die.

### 1.2.2. Helburuak

Ebaluaketen laburpenaren hartzaile nagusiei dagokienez, honek, arlo eta gai desberdinen gaineko erabakiak hartzea erraztu behar du; hau da, programaren orientabidearen, zenbait kolektibotan zentratzeko beharraren eta/edo helburu jakin batzuen, jardueretan, esku hartze eta kudeaketa prozesuetan hobekuntzak sartzearen, programaz kanpoko faktore baldintzatzaileen,... gaineko erabakiak hartzea.

Programa bere baitan biltzen duen udal arloko zinegotziei, laburpenak, programaren orientabide orokorraren gaineko erabakiak hartzeko laguntza eman diezaieke eta, bide batez, udalerrian ezarri zenetik aurrera izan duen garapenaren inguruko informazioa.

Gainontzeko hartzaileei, laburpenak, eurekin burutzen aritu den lankidetza kokatzeko eta bideratzeko aukera eman diezaieke eta ildo horretatik bideratu beharko litzateke aurkezten zaien laburpena.

Ebaluaketak ondoko helburu zehatzak bete nahi izan ditu:

- Arreta jarri den populazioaren gaineko ezaugarriak, ahalik eta modurik zehatzenean, finkatzea legozkiokeen egokitzapenak egiteko.
- Pertsonen gizarteratzean programak izan dituen lorpenak eta bere eragina ebaluatzea, programaren egungo irismena eta bete ez diren helburuak, etorkizunean betetzeko garapen beharra mugatuz, bide batez.
- Ebaluatutako alderdi desberdinen azterketa sistemiko bat egitea, prozesuetan – emaitzetan – lorpenetan zentratuz.

Helburu hauek kontuan izanik, ebaluaketak, programaren diseinua, bere barneko koherentzia, bere eragina eta esku hartzeko prozesuetan erakutsitako eraginkortasuna jasotzen ditu.

### 1.2.3. Xede duen populazioa

Ebaluaketen laburpena, programa ezarri zenetik egundaino erabiltzaile izan direnengan zentratzen da. Hau da,

- Arrisku egoeran diren adingabekoak eta gazteak eta beren familiak (salbuespen gisa babesik gabe dauden adingabekoak edo gazteak).
- Esku hartzearen xede izan eta baliabideetan txertatuta dauden adingabeko eta gazteak
- Arrisku egoeran diren adingabekoen gizarteratzea bultzatzen lagundu duten maila lokaleko zerbitzu sistemak (hezkuntza, osasuna) eta komunitateko bestelako baliabideak.
- Komunitateko pertsonak eta kolektiboak.

Emaitzen ebaluaketa (lorpenak eta eragina) programan parte hartu duten pertsona guztiengan zentratu da, gero utzi duten ala ez kontuan hartu gabe. Bakar bakarrik, bideratzetik areagoko esku hartzerik izan ez duten pertsonak atera dira ebaluaketatik.

Hala, bada, ebaluaketa, programak arreta jarri duen populazioaren ezaugarrien eta bilakaeraren azterketan zentratu da, beti ere aipatutako salbuespena salbu, laginik atera gabe.

### 1.2.4. Ebaluaketen laburpena egiteko erabilitako sistemak

Txostenak egiteko udalerri bakoitzean eta urteetan zehar erabili diren eskemak desberdinak izan dira eta, horregatik, zaila izan da udalerrien eta urte desberdinen artean erkatzeko moduko datuak lortzea.

Nolanahi ere, lor zitezkeen datu haietan oinarritutako eskema bateratu bat egin da, ahalik eta erabiltzaileen, programaren lorpenen, gauzatutako jardueren eta eginkizunen,... deskribapenik homogeneoena egin nahian.

Ebaluaketen laburpena, aurretik zeuden txostenetan ageri ziren datuetan oinarriturik egin da, batez ere, aurrez garatutako hezkuntza proiektuetan oinarritzen zirenak.

Behin kale hezitzaileak laburpena egin ondoren, programa bere baitan biltzen duen departamentuaren bilera batean aurkeztu da eta, bileran egindako ekarpenak behin betiko agirian jaso.

#### 1.2.4.1. Ebaluaketa eredua

Jasotzen den ebaluaketa ereduaren arabera, ebaluaketa, prozesu deskribatzaile, baloratzaile bat da, programaketa eta ondoren ekintza baldintzatuko duten erabakiak hartzera begira dagoena, hau da, etengabeko hobekuntzako planteamendu batetik abiatzen dena.

Ebaluaketen laburpena eta ebaluaketak, planteamendu honi jarraiki egituratzen dira eta lau atal ditu (kokapena, deskribapena, balorazioa eta programaketarako orientabideak).

Hala, ebaluaketaren helburu nagusia, programaren hurrengo aldia bideratzea izan da, prozedura zorrotz eta enpiriko bati jarraiki lortu diren datuetan oinarriturik, hobekuntzarako gomendio eta proposamen errealistak egitea, alegia.

Hemen jasotzen den ebaluaketa eredua hezitzailea bezain batzailea bada ere, ebaluaketak, planteatu den unean planteatu delako, izaera batzailea baino ez du izan. Alabaina, programaren barne, ebaluaketa iraunkor bat (hezitzailea) burutu da, nahiz eta sistematizatu gabe.

Bestalde, ebaluaketa ereduak izaera partehartzailea dauka, parte hartzea bera ebaluaketan ez baita soilik programako profesionalek egin beharrekoa, erabiltzaileek, beste zerbitzu sistematako profesionalek, boluntarioek,... ere egin dezaketena, baizik.

Hala, ondorioz, ebaluaketan objektibotasuna, adierazle sistema bat erabiltzean lortzen da, baina bai eta, agente desberdinen artean lortutako kontsentsuaren bidez hartutako erabakietan (elkarsubjektibitatea).

Nolanahi ere, ebaluaketaren uneak berak ezartzen dituen mugak kontuan izanik, erabiltzaileen, boluntarioen eta beste zerbitzu sistemetako profesionalen partehartzea mugatua izan da.

Azkenik, ebaluaketa eredua, programa sistema baten gisara ulertzean oinarritzen da, eta hala sarrerak (informazioa eta baliabideak), esku hartze eta kudeaketa prozesuak, eta irteerak edo emaitzak (emaitzak – jarduerak-, lorpenak eta eragina) biltzen ditu.

Adierazleetan oinarritutako ebaluaketa esku hartzearen (lorpenak eta eragina) emaitza batzuetan bakarrik zentratu da; eta adierazleak, bide batez, erabiltzaileen kolektiboen ezaugarriak finkatzeko erabili dira.

#### 1.2.4.2. Metodologia

Programari hasiera 1994. urtean eman zitzaion. Ordura arte ez zen inoiz Programaren ebaluaketarik, zentzu zorrotzean, egin; beraz, oso mugatua izango da aurreko "ebaluaketetako" datuekin egin daitekeen konparaketa.

Tokian tokiko lana 2000ko                                        ko hilabeteetan zehar egin zen.                         ko hilean lortutako informazioaren azterketa eta ebaluaketaren txostena idatzi ziren.

Ebaluaketaren diseinua egitea planteatu zenerako programa hasita egoteak baldintzatu egin du, nahiz eta neurri batean baino ez, bere irismena, zenbait datu lortzea erabat ezinezkoa izan baita, inolako erregistro sistemarik ez zelako aurreikusi.

Egindako lanak, nolanahi ere, egungo programaren ebaluaketa gainditu du, programak berez duen planifikazio sistemaren hobekuntza eta etorkizunean programari aplikatuko zaion ebaluaketa sistemaren diseinua hobetuz (beti ere, etengabeko hobekuntzara begira, mistoa agenteen ikuspegitik, partehartzailea, emaitzetan eta prozesuetan hezitzailea eta biltzailea,...).

Informazio iturriei dagokienez, adierazi dugu honezkero asko izan direla eta agente desberdinak murgildu direla ebaluaketan.

Erabiltzaileei buruzko datuak (ezaugarriak, lorpenak, eragina) bildu, programako profesionalek ordurako zuten informazioaren azterketan oinarriturik bildu dira (erabiltzaile fitxa).

Bestalde, taldeak,                    barne bilera egin ditu ebaluaketarako, tokian tokiko lana behin amaitu ondoren.

### 1.3. Ebaluaketen laburpena irakurtzeko oharrak

Atal honetan **gauza da, ebaluaketen laburpena irakurri behar duenari lana erraztea, nola irakurri behar den adieraztea**.

Puntua idatzita dago honezkero. Iradokizunen bat egin edo erantsi nahi bada egin daiteke.

Komenigarria da ebaluaketen laburpena kokapenetik hastea, GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programa zertan den jakiteko eta aztertutako aldian zeintzuk izan diren helburuak jakiteko.

Behin kokapena irakurri ondoren, komenigarria da irakurtzea, hurrengo lau urtetan zehar programak izango duen garapenerako jarraibideak. Jarraibide hauek egindako azterketan oinarritzen dira; eta azterketa, berriz, deskribapenaren bidez emandako datuetan eta programa bere baitan biltzen duen departamenduko hezitzaile taldearen gogoetan. Hala, bada, jarraibideak irakurri ondoren, azterketa irakurtzea gomendatzen dugu eta ondoren deskribapena.

Bai deskribapenari dagokionez eta bai balorazioari (azterketa) dagokionez, programa osatzen duten gai desberdinak aurkezten dira, ondoko ordenari jarraiki:

- Erabiltzaileak eta beren ezaugarriak
- Lorpenak
- Jarduerak (zerbitzuak)
- Arreta zuzeneko eginkizunak (jarduerekin eta proiektuekin loturik).
- Arreta zuzeneko eginkizunak
- Giza baliabideak
- Baliabide material eta ekonomikoak
- Programatik kanpoko faktoreak programa baldintzatu dutenak.

Azterketa lorpenekin hasten da, ondoren, erabiltzaileetan zentratzen da eta gainontzeko elementuekin jarraitzen du, adierazitako ordenan.

Jarraibideek azterketaren antzeko eskemari jarraitzen diote (lorpenak, erabiltzaileak-hartzaileak, jarduerak/proiektuak, arreta zuzeneko eginkizunak, zeharkako arretako eginkizunak eta, horien artean, giza baliabideen eta baliabide material eta ekonomikoen kudeaketa, kanpoko faktore baldintzatzaileak), nahiz eta gai hauek kudeaketa alorka antolatu diren.

Beraz, aipatutako gai hauetako bakoitzaren zeharkako irakurketa bat ere egin daiteke (esaterako, arreta zuzeneko eginkizunen inguruko jarraibideak – arreta zuzeneko eginkizunen azterketa – arreta zuzeneko eginkizunen deskribapena).

### 1.4. Aurkibidea

Kokapena Laburpenarekin amaitzen da, irakurketa errazten duelarik. Idatzita dago honezkero.

### 1. Ebaluaketen laburpenaren kokapena

1.1. GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO programako fitxa teknikoa
1.2. Txostenen laburpenaren hartzaileak eta helburuak, xede duen populazioa eta egiteko erabili diren sistemak.

1.3. Txostenen laburpena irakurtzeko oharrak.
1.4. Aurkibidea

## 2. Aztertutako aldiko programaketen laburpena.

## 3. Deskribapena

3.1. Erabiltzaileen deskribapena

### 3.1.1. Erabiltzaileen kopurua guztira eta proiektuka.

Banako hezkuntza proiektua duten erabiltzaileen kopurua, urteka eta adin multzoka.
Hezitzaileek esku hartze berezia izan duten familien kopurua.
Famili kideen kopurua, bestelako esku hartzerik (banako, taldeko edo igarobidekoak) duten adingabekoak alde batera utziz.
Erabiltzaileen errotazioa urteka
Koordinazioa banako proiektuetan, adin multzoka
Taldeko proiektuen erabiltzaile kopurua (taldeko, igarobideko eta autokudeatutakoak)
Taldeko proiektuen adingabeko erabiltzaileen kopurua urteka.
Taldeko proiektuetan esku hartzen duen baliabide kopurua urteka
Baliabideen zerrenda urteka
Proiektu komunitarioetako erabiltzaileen kopurua urteka.
Erabiltzaileen kopurua guztira

### 3.1.2. Erabiltzaileen ezaugarri orokorrak

Banako eta taldeko proiektuetan sartuta dauden erabiltzaileen ezaugarriak.
Erabiltzaile kopurua adin multzoka eta urteka
Erabiltzaile kopurua generoka eta urteka
Erabiltzaile kopurua gizarte lan unitateko / udalerriko zonaka eta urteka.
Erabiltzaile kopurua ..... (udalerri bakoitzaren esku) eta urteka.

### 3.2. Lorpenen monitorizazioa

Erabiltzailearen egoeraren bilakaera taula urteka.

### 3.3. Emaitzen monitorizazioa (proiektuak, jarduerak) eta prozesuak / arreta zuzeneko eginkizunak.

### 3.3.1. Proiektuen eta jardueren monitorizazioa.

Banako hezkuntza proiektuak
Taldeko proiektuak
Igarobideko proiektuak
Komunitate proiektuak

### 3.3.2. Proiektuekin eta jarduerekin lotuta gauzatu diren eginkizun nagusienen monitorizazioa (arreta zuzena)

Banako hezkuntza proiektuak
Taldeko proiektuak (egokia iritziez gero, proiektu motak desberdin daitezke).
Komunitate proiektuak

### 3.4. Prozesuen monitorizazioa / zeharkako arretako eginkizunak

### 3.5. Giza baliabideen monitorizazioa

### 3.6. Baliabide material eta ekonomikoen monitorizazioa

### 3.7. Programa baldintzatu duten kanpoko faktoreen deskribapena.

### 3.8. Interesgarriak izan daitezkeen beste programetako gai edo alderdiak.

## 4. Balorazioa

### 4.1. Azterketa orokorra

4.1.1. Lorpenen azterketa
4.1.2. Erabiltzaileen azterketa
4.1.3. Emaitzen azterketa (proiektuak / jarduerak)
4.1.4. Arreta zuzeneko eginkizunen / prozesuen azterketa
4.1.5. Zeharkako arretako eginkizunen / prozesuen azterketa
4.1.6. Giza baliabideen azterketa
4.1.7. Baliabide material eta ekonomikoen azterketa
4.1.8. Kanpoko faktore baldintzatzaileen azterketa
4.1.9. Beste programetako gai edo alderdi interesgarrien azterketa

### 4.2. Erlazio azterketa

### 4.3. Laburpena

## 5. Programaketarako orientabideak

Proiektuen –eta programaren bere osotasunean- kudeaketa.

### 5.1. Programaren helburuaren mugaketa edo eguneratzea (xedea / helburuak – hartzaileak edo erabiltzaileak).

Bereziki sakondu nahi den helburua
Esku hartzearen xede izatea nahi diren hartzaileen edo erabiltzaileen azpitaldeak.

### 5.2. Aldaketak edo hobekuntzak emaitzetan (jarduerak eta proiektuak).

Esku hartze kopuruaren inguruan izandako aldaketak proiektu motaka (ratioak).
Aldaketak jardueratan eta proiektuetan (proiektu berriak eta aurrez ziren proiektu edo jardueratan izandako hobekuntzak).

### 5.3. Arreta zuzeneko eginkizun/prozesuetan aldaketa edo hobekuntzak sartu.

5.4. Zeharkako arretako eginkizun/prozesuetan aldaketak edo hobekuntzak sartu.
- 5.4.1. Planifikazioa
- 5.4.2. Koordinazioa
- 5.4.3. Informazioaren kudeaketa
- 5.4.4. Baliabide material eta ekonomikoen kudeaketa (aldaketak edo hobekuntzak baliabide material eta ekonomikoetan)
- 5.4.5. Giza baliabideen kudeaketa (aldaketak edo hobekuntzak giza baliabideetan, hezkuntza,...).

5.5. Erakunde mailan, programaren mikroinguruan eta makroinguruan eskatutako aldaketak edo hobekuntzak.

5.6. Gizarte ekimenaren kudeaketa (ingurugiro inpaktua, emakumearen sustapena, euskalduntzea,...).

## 2. Aztertutako aldiko programaketen laburpena.

Ondoren, aztertutako aldiko **programaketaren laburpena** aurkeztu behar da (eta, dagokionean, programaren garapen planak).

Deskribapenean, xehetasunez jasoko da, norekin egin den lana, zer lortu den, zer jarduera eta eginkizun burutu diren. Atal honetan programatutakoaren laburpen bat jaso behar da, nondik nora bideratu nahi izan zen programa (hartzaileak, helburuak, programatutako ekintzak). Nahikoa izango da, urte hauetan programak izan duen ibilbidea jasoko duen orri bat idaztea.

## II. Deskribapena

Ebaluaketen laburpenaren zati deskribatzaileak zortzi atal ditu.

Ondorengoa deskribatzea da xedea:

- Erabiltzaileen kopurua eta beren ezaugarriak, proiektu motaka
- Izandako lorpenak eta lortu ez diren emaitzak
- Gauzatutako proiektuak eta jarduerak (emaitzak).
- Gauzatutako eginkizunak (arreta zuzen eta zeharkako prozesuak).
- Erabilitako baliabide materialak eta ekonomikoak.
- Giza baliabideak
- Programa baldintzatu duten kanpoko faktoreak
- Konparaketa bat egitea interesgarria izan daiteken beste programa batzuetako elementuak edo alderdi desberdinak.

**II. DESKRIBAPENA**

3. Erabiltzaileen deskribapena
    3.1. Erabiltzaileen kopurua guztira eta proiektuka (banaka, taldeka, komunitarioak).
    3.2. Erabiltzaileen ezaugarri orokorrak; eta ezaugarri horiek proiektuka.

4. Emaitzen deskribapena
    4.1. Lorpenen deskribapena
        4.1.1. Arazoarekin lotutako lorpenen deskribapena
        4.1.2. Hipotesiekin lotutako lorpenen deskribapena.
    4.2. Esku hartzearen eraginaren deskribapena

5. Programako beste elementuen deskribapena.
    5.1. Produktuen (proiektuak / jarduerak) eta arreta zuzeneko prozesuen / eginkizunen deskribapena.
        5.1.1. Proiektuen eta jardueren deskribapena
        5.1.2. Proiektuen eta jardueren inguruan burututako eginkizun nagusien deskribapena (arreta zuzena).
    5.2. Prozesuen deskribapena / zeharkako ardurako eginkizunak
    5.3. Giza baliabideen deskribapena
    5.4. Baliabide material eta ekonomikoen deskribapena
    5.5. Programa baldintzatu duten kanpoko faktoreen deskribapena.
    5.6. Konparaketa bat egitea interesgarria izan daitekeen beste programetako gai edo alderdi desberdinen deskribapena.

## 3. Erabiltzaileen deskribapena

### 3.1. Erabiltzaile kopurua guztira eta proiektuka

- Lehenik, **erabiltzaileen kopuru osoa eta proiektuka adierazi** behar da, ondorengo taulak betez.

Informazio homogeneo bat lortzeko arazoak daudenez eta proiektuen kategoriak (banakoak, taldekoak, autokudeatuak, igarobidekoak eta komunitarioak) ezarri berriak direla kontuan izanik, atal honetan banako hezkuntza proiektuen, taldekoen eta proiektu komunitarioen –aurreko sailkapen bera-arteko bereizketa egitea proposatzen dizuegu.

Banako hezkuntza proiektuak dituzten erabiltzaileen kopurua, urteka eta adin multzoka.

| | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 | 99-00 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13 urtetik beherakoak | | | | | | |
| 14 eta 15 | | | | | | |
| 16-17 | | | | | | |
| 17 urtetik gorakoak | | | | | | |

Hezitzailek nolabaiteko esku hartzerik izan duten familien kopurua, urteka sailkatuta.

| | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 | 99-00 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Familia kopurua | | | | | | |

Bestelako esku hartzetako (banako, taldeko edo igarobideko) xede diren familien kopurua, adingabekoak eta gazteak aldera batera utziz, urteka –datu hori izanez gero-.

| | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 | 99-00 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Senideen kopurua | | | | | | |

Erabiltzaileen errotazioa urteka

| | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 | 99-00 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurreko urteetatik datozen kasu kopurua | | | | | | |
| Kasu berrien kopurua | | | | | | |
| Urtean zehar itxitako kasuen kopurua | | | | | | |
